

ANTOLAKUNTZA-EGITURA

Donostiako Udaltzarak Sozietaetaren Batzar Orokorra osatzen du.

Donostia Sustapena S.A.ren gobernu organo nagusia Administrazio Kontseilua da.

Donostia Sustapena, S.A.ko gerenteak gainerako gobernu organoek emandako jarraibideen arabera zuzentzen eta ikuskatzen ditu sozietaetaren jarduerak, eta sozietaetako presidentek izendatzen du, Administrazio Kontseiluan eztabaidatu ondoren.

Donostia Sustapena, S.A.ren antolakuntza-eredua / organigrama honako hau da:



Organigramatik ondoriozta daitezkeenez (ikus aurreko irudia), kudeatzailearen figuratik abiatuta, 5 jarduera-eremu bereizten dira; eremuok, unean-unean biltzen dituzten zerbitzuez edota edukiez harago, egiturazko esparru egonkor eta finkatuak islatzen dituzte, epe ertain eta luzera Donostia Sustapena, S.A.ren estrategiatik erator daitezkeen proiektuen aukera zabalari erantzuten diotenak.

Sozietatea kudeatzeko eredua kudeaketa-eredu mistoa da, zerbitzuen eta proiektuen kudeaketan oinarritua.

Antolakuntza-eredu honetan jasotako lanpostuei dagokienez, eraginkortasun handiagoa lortze aldera, lanpostu teknikoak eta administrazio lanpostuak multzokatu egin dira; beraz, une bakoitzean abian egon daitezkeen proiektuak edota beharrak kontuan hartuta, eremu bati edo beste bati esleitzen dira.

Lan taldea eta lanpostuak honako hauek dira:

1. Zuzendari Kudeatzailea: Iñigo Olaizola Arcaute
2. Antolakuntza eta Jasangarritasun Ekonomikoaren arloko arduraduna
3. Berrikuntzako eta Lehiakortasuneko arduraduna
4. Estrategia Adimendun eta Sektorialaren arloko arduraduna
5. Behatoki Adimenduneko arduraduna
6. Azterlan Estrategikoetako Teknikaria
7. Antolakuntzaren eta Pertsonen arloko arduraduna
8. Ekonomia-Garapeneko eta Merkataritzako Teknikaria
9. Kudeaketako Teknikaria
10. Administraria
11. Zuzendaritzako Administraria
12. Proiektu-burua